



## ■ HERNANI KULTUR AGENDA

## Menditik musikara, azaroko ibilbidea

Mendiriz Mendi elkartearen Mendizale asteak eman dio hasiera hilabeteko kultur agendari eta antzerki zikloarekin jarraitu eta gero musikarekin zapalduko du gailurra azaroak.

MENDIZALE Astearekin hasi dute hernaniarrek azaroko aldapa eta Santa Zezilia egunaren bueltan, musikari esker, ukituko dute gailurra hilabete amaieran. Tartean antzerkia ere ikusi ahal izango da zikloarekin urteko azken aurreko ibilbidea xamurtze aldera. Bidean kobazu-loetara irteera, literatura, erakusketak... aspertzeko denborarik ez dute izango ekitaldietan parte hartzen dutenek. //4

## ■ URUMEA

### Enpresa parte hartzaileak sortzen

Enpresa parte hartzaileen ekosistema sortzeko lehen urratsak emango dira etzi Orona Ideon *Beterri Saretuz* programaren barruan. //2

## ■ HERNANI

### Odol emaileen zita

Hileko lehenengo asteartea izanik odola emateko zita dago gaur anbulategian. Beti bezala 18:00etatik 20:30etara da ordutegia. //2

## ■ URUMEA

### Soberan daudenen berpiztea Txilen

Hernaniar eta euskaldun ikasleak badaude Txilen eta gertutik ari dira bizitzen lurraldeak bizi duen egoera sozio-ekonomikoa zein politikoa salatzen soberan daudenen berpiztea. //5

## ■ URUMEA

### Futbol taldeek, garaipenak

Hernaniko eta Mundarroko talde nagusiek asteburu borobila izan dute. Mundarrok 5-0 irabazi zuen Gure Txokoaren aurka Preferente mailan, eta Hernanik 4-0 Aretxabaletaren kontra Ohorezko Erregionalean. //8

## Borrokaren sari sinbolikoa

Pentsiodunek kontzentrazioa egin zuten eguraldiagatik Hernaniko Plazan eta ez manifestazioa. Ikusgai Lan Sozialaren Kontseilu Orokorrak eman dien garaikurra zegoen. Beraien borrokak sari ugari ditu. /3



## GAUR KRONIKAN

## Hernani /2-3

Jasota bezala, Herrigunea Halloween, Beldur Barik, kultur ondarea...

## Astigarraga /2-3

Harituz eta Gaztelekua.

## Kirolak /6-8

Pelota, txirindularitza, xakea, CD. Hernani...

**Nekane**  
Centro de belleza - Estética  
Antziola 4  
Tel.: 943 24 32 53  
www.centrodebellezaneckane.com

**ZURE LASER ZENTROA**  
Doako diagnostikoa!

**LASER PLATAFORMA**  
Laser Alejandrita  
LightSheer® DESIRE™ diodoa

- 20 urtetako esperientzia dugu depilaziorako laser teknologian lider mundala den teknologian.  
- Minik gabeta.

Probatu dezazun, ate irekiak antolatu ditugu AZAROAREN 11tik 16ra.  
Informazio gehiagorako: 943 24 32 53 edo 688 605 849

**HATOR**  
AHOLKULARITZA

Fiskala, laborala eta Kontabilitatea.

Gure zerbitzuak euskaraz jasotzeko aukera duzu...

**MAPFRE ASEGURUAK**

Andre kalea 60, Hernani  
Tel: 943 55 43 12  
hator@euskalnet.net

**PEÑA**  
sulabe

Okindegia - Janaridenda

Eguneroko zure beharrei erantzuteko, Kale Nagusian gaude.

Kale nagusia, 19 - Tel.: 943 55 23 98

**ITXASPE**

Arrandegia  
Antziola 5  
Tel.: 943 330 365  
Mobiila: 665 735 224  
20120 Hernani

I URUMEA BETERRI BURUNTZA

# Enpresa parte hartzaileen ekosistema sortzeko lehen urratsak emango dira etzi Beterrin

'Beterrin Saretuz' programa sortu da eskualdean hainbat enpresa eta eragile ekonomia sozial eta eraldatzailearen bueltan sare eraginkor bat sortzeko helburuz. Lehen jardunaldia Oronan-Ideon dute, etzi, 09:30etatik 13:30etara.

BETERRI eskualdean joan den ikasturtetik ari dira lanean hainbat enpresa eta eragile, ekonomia sozial eta eraldatzailearen bueltan sare eta nodo eraginkor bat sortzeko helburuz. Epe luzerako ikasketa prozesu bat da, eta estrategia horretan, lehen proiektuari ekingo diote aurten: partaidetza oinarri duten enpresen ekosistema sortzea. *Beterrin Saretuz* deitu diote programari, eta aurrera eramateko Gipuzkoako Aldundiaren eta *Beterrin Buruntza* Udalen laguntza izango dute.

Horretarako hainbat jardunaldi egingo dituzte, esperientzien ezagutza, bidelaguntza eta lan-mahaian bidez *Beterrin* eragile euren barne egituretan partaidetza bultzatzeko tresna edo gidaliburu bat izan dezaten.

Etzi, ostegunean, izango da lehen jardunaldia, Orona-Ideon, goizeko 09:30etatik 13:30etara. Bertara gonbidatu dituzte eskualdeko enpresak, lanbide heziketako eragileak, ekin-

tzaileak, co-working zentroetako kideak eta garapen agentziak.

## Bost enpresen testigantza

Ez da ohikoa enpresek euren barne antolaketaz eta funtzionamenduz modu irekian hitz egitea. Osteguneko jardunaldian halaxe egingo dute bost enpresek, euren izandako esperientziekin beste enpresek ere ikasi dezaketelakoan.

Jardunaldiaren hasieran proiektua zertan den aurkeztu ondoren, Aitor Bengoetxea GEZKI-ko zuzendariak (EHUko Gizekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua) oinarritzeko nozioak emango ditu eta azalduko du nola eragiten duten enpresen parte-hartzean mozkinak, kapitala, kudeaketa eta informazio fluixuak antolatzeko moduek.

Enpresen hitzartzea etorriko da ondoren: Talleres Mitxelena, Argia, Fagor Luzuriaga, Katea Legaia eta TaPuntu. Alor ezberdinetan partaidetzarako sistemak ezarri dituzte guztiek



Talleres Mitxelena enpresaren testigantza entzungo da Orona-Ideon.

eta sektore, tamaina nahiz izaera askotakoak izanik, ikuspuntu anitza eskainiko dute.

## Partehartzea, lehen urratsak

Langileek enpresa barruko kapitalean eta erabaki estrate-

gikoetan parte-hartzea ekonomia sozial eta eraldatzailearen funtsetako bat da. Era berean, erakunde publikoek gero eta garrantzia handiagoa ematen diote partaidetzari, enpresen eta pertsonen garapenerako lehen urratsak ezaugarria

baita haientzat ere. Ildo horretan, Gipuzkoako Aldundiak partaidetza integratuta bultzatzeko diru-laguntzak ematen ditu, «langileei enpresa proiektuan parte hartzeko bideak irekitzeko». Horren bidez abiatu da *Beterrin Saretuz* programa. ||

## ☞ JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

## 10Ñ karanbola ote Catalunyan?

Billar frantsesa karanbolak egitean datza, eta hortarako, jolas-mahaian bola horia, gorria eta zuria daude. Partida hasiera bola horiari dagokio, eta karanbolak egiteko jaurtitze berean bola horiak beste biak ukitu behar ditu.

Catalunyan herriak eman dio hasiera partidari, eta jolas-mahaian bere bola horia, zezen-odol gorriko bola eta nazioartean kolore neutroko bola zuria daude. Karanbola egiteko, jaurtitze berean Catalunyan Ñ-ren akordiorako gaitasunik eza biluztu nahi du, eta horrela arazo nazionala nazioartekotu. Baina, bola gorria astindu ostean ez du bola zuria ukitu, nazioartekoa afera espainiar

estatuko barne arazo gisa hartzen baitu. Ez dago karanbolarik!

Ñ-ren txandan, epai mendekariak Catalunyan herria sutan jarri du. Bola zuria jomugan, bere sistema politikoa nazioartean legitimatzeko Ñ-k hauteskunde orokorretara deitu du, eta efektuak bola horia ukitzen du, Catalunyan klase politikoa herria bozetara daramalako. Karanbola!

Billar-jokoan, politikan bezala, oinarritzeko arauak eta printzipioak daude, eta partida irabazteko, jakituria guztia praktikan jarri behar da. Munduak badaki Catalunyan arazo nazionala dagoela, baina bere klase politikoa joko-estiloa ez da homologatua, hiru jolaskide ez dira

onartzen; beraz, nazioarteko balizko aliatua egonean dago. Ezinezko karanbola!

Ez al da inkoherentea Ñ-ren sistema politikoa arbuia-tzea eta aldi berean botoa emanaz legitimatzea? Zortea opa diot Catalunyan herriari, eta bere klase politikoa 10Ñ balia dezala munduari ozen adierazteko Ñ-rekin jolasteari BOIKOTA egiten diola, orduantxe lortuko baitu Ñ-ren zapalkuntzari legitimitatea kentzea, eta nazioartekoa Consell per la República Catalana subjektu politikoa aintzat hartuta, bere arazo nazionala nazioartekotzea. Karanbola eta partida!

Iñigo Gallartzagaitia  
Zorrotzua  
Orreagako kidea

## ■ HERNANI ODOL EMATEA

### Odol emaileek zita dute gaur anbulategian

Hileko lehenengo asteartea izanik, odola emateko zita jarri du Hernaniko Odol Emaileen taldeak gaur, hain zuzen. 18:00etatik iluntzeko 20:30etara izango da aukera, anbulategian. Organu-emaile ere egin ahal izango da. ||

## ■ HERNANI ANTZERKI ZIKLOA

### Sarrera gutxi batzuk falta dira saltzeko

Sarrerak zitu bizian ari dira saltzen Antzerki Ziklorako nahiz eta atzo arratsaldean oraindik ere batzuk geratu. Azaroaren 12, 13 eta 14an izango da, hiru obrarekin: *Zaldi urdina*, *Utzi mezua seinalearen ondoren*, eta *Elisa y Marcela*, hurrenez hurren. Larunbatean *Ehuna haur* antzerkia dago. ||

## ■ HERNANI HERRIGUNEA

### 'Ama izan' saioa gaur antolatu da Urumean

*Ama izan* saioa gaur, Urumea Herrigunean 17:30etan hasiko da. Ama izatea zer den landuko dute, zortzi protagonistaren ikuspuntutik: Engraxi, Itziar, Ihintza, Ixiar, Marga, Nahia, Nora eta Txaro. ||

## ■ ASTIGARRAGA HARITUZ

### Hilabeteko lehenengo bilera irekia

Harituz emakume taldeak antolatua bilera irekiak antolatuko dira Astigarragako kultur etxean, ia asteartero. Lehenengo gaur izango da 16:45etatik 18:15etara. ||

■ HERNANI HALLOWEEN



Neska ausartek ez zioten beldur askorik erakutsi banpiroari.

**Jendetza bildu da aurten ere Zikuñagako labirintoan**  
Halloween edo Gau Beltzeko ospakizunak igandera arte luzatu ziren Zikuñagan urteroko labirintoarekin. Aurten ere jendetza bildu zen eta jende kontadoreak lana izan zuen. Pasa den urtean 500 lagun, gutxi-gora-behera, hurbildu ziren eta oraindik aurtengo datuaren faltan zenbakiak ez dira urritu izango edo hortik gora joan zirela esan liteke. Beldur labirintoan ikaraz, baina ezin hobeto pasa zuten hurbildutakoek. ||

■ HERNANI PENTSIODUNAK

## Manifestaldirik ez, baina jaso duten saria erakutsi dute Plazan

*Eguraldiak manifestazioa bertan behera utzi zuen, baina Lan Sozialaren Kontseilu Orokorrek eman dien garaikurra zegoen.*

EGURALDI txarragatik pentsiodunen manifestazioa bertan behera geratu zen atzo, baina hala ere Plazan bildu ziren Lan Sozialaren Kontseilu Orokorrek eman dien saria erakusteko.

Euskadiko Pentsiodunen Mugimenduari eman diote eta garaikurra herriz herri eramango dute. Hernanin izan ziren atzo kontzentrazioan, eta

harekin taldeko argazkia atera zuten. «Guretzat ohore bat da sari hau jasotzea. Bere baitan dakar milaka eta milaka pentsiodunok 14 hilabete hauetan gure aldarrikapenen alde egin dugun borrokaren aitortpena» adierazi zuten pentsiodunek.

Pentsionisten mugimenduak baloreari jarri nahi izan ditu pentsionisten mugimen-

duaren hainbat lorpen: Pentsioen KPIaren igoera bi urtean, Jasangarritasun Faktorearen aplikazio atzeratzea 2023 urtera arte, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata 900 eurora igoetzea, Alarguntza pentsioaren kalkulua egiteko, oinarri erregulatuaren %60a hartzea. «Lorpen guztiak ez daude bermaturik etorkizunean». ||

■ ASTIGARRAGA GAZTELEKUA

## Erreibindikazio hilabetea izaten da azaroa

*Azaroak 20a Haur eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Eguna da.*

AZAROA erreibindikazio hilabete izaten da nerabeentzako beraien nazioarteko eguna ospatzen baita hilak 20an. Aurten ere, azaroaren 16an Nerabeak aldarrikatzen eguna antolatu dute Gaztelekuan.

Ez da Astigarragako Gaztelekuak antolatu duen ekitaldi bakarra. Egitaraua pasa den

asteburuan hasi da aurrera eramaten eta aukera zabalagoa da bertan antolatzen diren egitasmoetan parte hartzeko.

Honela, pelikula, toka txapelketa, sukaldaritza gozoa tailerra, just dance, karaokea, times up eta mahai tenisa antolatu dira larunbata eta igandean. ||

**Gaztelekuko egitaraua**

**Azaroa**

- 9, Pelikula.
- 10, Toka txapelketa.
- 16, Nerabeak aldarrikatzen.
- 17, Sukaldaritza gozoa.
- 20, Haur eta nerabeen eskubideen nazio arteko eguna.
- 23, Just Dance.
- 24, Karaokea.
- 30, Times Up.
- Abendua 1, Mahai tenisa.
- Ordutegia**

- Asteleheneretan, itxita.
- Asteartetik ostiralera eta igandetan, 17:00etatik 20:00etara.
- Larunbatetan, 16:30etatik 20:30etara.
- 12 eta 18 urte arteko gazteentzako aisialdi gunea.



Pasilo estuan lurrera erori zenik egon zen beldurra jota.

■ URUMEA BELDUR BARIK

## Lanak bidaltzeko azken eguna, gaur

*Sari orokorraz gain, Hernaniko gazteentzako ere antolatu da lehiaketa.*

BELDUR Barik lehiaketan parte hartzeko martxan dago gaur arte Emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerei aurre egiten dieten neska-mutilen artean adierazpenak sustatzea da, Beldur Barik programaren helburua. Bideoak edota lan grafikoak bidaliz hartu daitezke parte lehiaketan.

Lanak [www.beldurbarik.eus](http://www.beldurbarik.eus)

webgunera bidali behar dira kategoria desberdinetan lehiatzeko. Kategoria bat 12-13 urtekoena izango da; bigarrena, 14-18 urte artekoena; eta hirugarrena, 19-26 urte artekoena. Lehiaketa horretan parte hartzearekin batera, 'herria' atalean 'Hernani' idatziz gero, Hernaniko lehiaketan ere hartuko da parte. ||

■ HERNANI KULTUR ONDAREAREN BEKA

## Kultur Ondarearen beka zabalik dago

*Azaroaren 30era arte aurkeztu daitezke lanak eta 8.000 euro aurreikusten dira.*

HERNANIKO Udalak deialdia egin du herriko Kultur Ondarearen inguruan ikerketan lanak egiteko. Deialdia zabalik dago dagoeneko eta azaroaren 30era arte aurkeztu daitezke proposamen-proiektuak udal-letzeko HHZ zerbitzuan.

Deialdi honen helburua da Kultur Ondarea osatzen duten elementuak aztertzea; eta ze-

hatzago, lehendik dagoen dokumentazioa berrikusi eta eguneratzea; 8.000 euroko diru kopurua aurreikusten da, eta epaimahaiak proiektu bat baino gehiago aukeratzeko da. Eskaera orriak eta informazioa [hernani.eus](http://hernani.eus) webgunean eta udal-letzeko HHZ zerbitzuan eskuratu daitezke. ||

■ HERNANI KULTUR AGENDA

# Mendizale astearekin hasi ondoren, musikarekin zapalduko du gailurra azaroak

Mendiriz Mendi elkartearen Mendizale asteak eman zion hasiera atzo azaroko kultur agendari. Gaur izango du jarraipena, beste proiektio batekin; Josu Iztueta izango dute protagonista, arratsaldeko 19:30etan hasita.

**MENDIZALE** Astearekin hasi dute hernaniarrek azaroko al-dapa, eta Santa Zezilia egunaren bueltan, musikari esker ukituko dute gailurra, bukeran.

**Josu Iztueta protagonista, gaur**

Atzo eman zioten hasiera Mendizale Asteari, eta ostegunera arte, egunero izango da proiektio bat. Gaur Josu Iztueta bidaiaria izango da protagonista; bere eskutik, *Biziminez* proiektioa ikusi ahal izango da, arratsaldeko 19:30etatik aurrera, Biterin.

Beste bi proiektio izango dira asteazken eta osteguneko leku eta ordu berean, eta ostiralean, aldiz, gaztetxoentzako txanda izango da. Arratsaldeko 18:00etan hasita, beraien irteeretako argazkiak ikusiko dituzte, lehenengo, eta ondoren, argazki lehiaketako sariak banatuko dizkiete.

**Antzerki-zikloa** ere izango da hilabete honetan; atzo jarri zituzten sarrerak salgai.

**Santa Zezilia egunak, arrastoa**

Santa Zezilia musikarien egunak ere, arrasto polita utziko du Hernanin. Hilaren 16an hasita, hainbat kontzertu eta emanaldi eskainiko dituzte Musika Eskolak, baita talde askok ere.

**Antzerki-zikloa, 12an hasita**

Baina dena ez da musika eta mendia izango. Antzerkia ere ikusi ahal izango da hilabete honetan. Hilaren 12tik 14ra hiru emanaldi eskainiko ditu antzerki-zikloak. Atzo jarri zituzten sarrerak, salgai. ■



Atzo hasi zen Mendizale Astea Sandiusterrin eta ez Biterin.

## AZAROKO KULTUR AGENDA

**Azaroak 8ra arte**, Mendizaleen Astea. Antolatzailea: Mendiriz Mendi elkarte. Lekua: Biteri Kultur Etxea.

**Azaroak 9**, Bigarren Eskuko Azoka + Kalez Kale Kantari + Erromeria. Ohiko leku eta orduetan.

**Azaroak 9**, Haur antzerkia: *Ehuna*. Taldea: *Dantzaz & Teatro Paraiso*. Lekua: Biteri kultur etxea. Adina: 1-5 urte. Ordua: 11:00etan eta 12:30etan. Sarrerak dagoeneko salgai.

**Azaroak 10**, Iturmendiko kobazulora bisita gidatua. Lekua: Antziola auzoko kobazuloaren ingurua. Ordua: 11:00. Antolatzailea: Felix Ugarte elkarte.

**Azaroak 12**, Ipuin kontaketa. Kontalaria: Pello Añorga. Lekua: Biteri kultur etxea. Ordua: 17:30 (3-4 urte) eta 18:00 (5-7 urte). Edukiera mugatua da; gonbidapenak liburutegian.

**Azaroak 12**, *Euskal emakumeen literatura ikuspegi feministatik* mintegia. Liburuak: *Amek ez*

*dute*. Katixa Agirre. Gidaria: Kattalin Miner. Lekua: udal liburutegia. Ordua: 19:00.

**Azaroak 16**, Santa Zezilia kontzertua. Taldea: Hernaniko Musika Banda. Lekua: udaletxeko arkupeak. Ordua: 17:30.

**Azaroak 17**, Bizilagunak. Antolatzailea: Amher.

**Azaroak 21**, *Musikalean*. Taldea: Hernani Musika Eskola Publikoko ikasleak. Lekua: kaleetan barrena. Ordua: 17:30.

**Azaroak 29-abenduak 3**, Inmigratzina. Antolatzailea: Amher. Lekua: Biteri kultur etxea. Ordua: 18:30.

**Azaroak 22**, Santa Zezilia kontzertua. Taldea: Hernani Musika Eskola Publikoko ikasleak. Lekua: Biteri kultur etxea. Ordua: 18:30.

**Azaroak 22**, Santa Zezilia kontzertua. Taldeak: Kantuz eta Astigarragako Aiztondo abesbatzak. Lekua: Milagrosa. Ordua: 20:00.

**Azaroak 22**, Santa Zezilia kon-

zertua. Taldea: Goiz Eguzki abesbatza. Lekua: kaleetan zehar. Ordua: 19:00.

**Azaroak 23**, Haur antzerkia: Etzerik txikiena. Taldea: Yarleku Teatro. Hizkuntza: euskara. Lekua: Biteri Kultur Etxea. Ordua: 12:00. Adina: +6 urte. Sarrerak salgai azaroaren 13tik aurrera.

**Azaroak 24**, Santa Zezilia eguna. Taldea: Hernani eta inguruko txistulariak eta tronpetajoleak. Lekua: erdigunea. Ordua: 09:15.

**Azaroak 26**, Ipuin kontaketa. Kontalaria: Lur Korta. Lekua: Biteri Kultur Etxea. Ordua: 17:30 (3-4 urte) eta 18:00 (5-7 urte). Edukiera mugatua. Gonbidapenak liburutegian.

**Azaroak 28**, Mintzodromoa. Lekua: Biteri kultur etxea. Ordua: 10:00-11:00 eta 18:00-19:00.

### ANTZERKI-ZIKLOA

Sarrerak dagoeneko salgai.

**Azaroak 12**, *Zaldi urdina*. Artedrama, Axut! Dejabu Panpin Laborategia. Hizkuntza:

euskara.

**Azaroak 13**, *Utzi mezua seinalearen ondoren*. Tanttaka teatroa. Hizkuntza: euskara.

**Azaroak 14**, *Elisa y Marcela*. A Panaderia (Galizia). Lekua: Biteri kultur etxea. Ordua: 20:00. Hizkuntza: gaztelania.

### LITERATUR SOLASALDIA

**Azaroak 13**, Liburuak: *Nada*. Carmen Laforet. Gidaria: Amaia Garcia. Hizkuntza: gaztelania. Lekua: udal liburutegia. Ordua: 19:30.

**Azaroak 19**, Liburuak: *Alkasoroko Benta*. Mikel Taberna. Gidaria: Ane Mayoz. Hizkuntza: euskara. Lekua: udal liburutegia. Ordua: 19:30.

### ERAKUSKETAK

**Azaroak 6-9**, Argazkiak. Egilea: Foto Forum Hernani elkarte. Irekiera.

**Azaroak 22-abenduak 10**, Pintura argazkia. Egilea: Lorentxa Beyrie. Lekua: Biteri kultur etxea.

### GAZTELEKUA

**GAUR, Azaroak 5**, Wii eta merienda.

**Azaroak 6**, Ideien zaparrada.

**Azaroak 7**, Saskibaloia Latsunben.

**Azaroak 10**, Pelikula: *Igelak*.

**Azaroak 13**, Merienda osasungarria.

**Azaroak 15**, Esku-lana: kamixetak.

**Azaroak 16**, Munduko sukaldaritza.

**Azaroak 17**, Ideien zaparrada erabakiak.

**Azaroak 19**, ekintza izarra.

**Azaroak 20**, Haurren eta nerabeen eskubideen nazioarteko eguna.

**Azaroak 21**, Futbol partidua Latsunben.

**Azaroak 22**, Beldur Barik. Sari-banaketa Biterin.

**Azaroak 23**, Aerorumba kiroldegian.

**Azaroak 26**, Merienda osasungarria.

**Azaroak 29**, Esku-lana: origami.

**Azaroak 26**, Esku-lana: Slime 2.0.

■ TXILE LARRIALDI EGOERAN

# Soberan daudenen berpiztea

Herrialde oso bat etxetik atera da egun lurraldeak bizi duen egoera sozio-ekonomiko zein politikoa salatzen. Pinocheten diktadurako arrastoak nabariak direlakoan, 'El baile de los que sobran', Los Prisioneros musika talde txiletarraren diktadurako abestiak berriro ere kaleak hartu ditu Txilen.

ANDREA ISASA FERNÁNDEZ

PIÑERA presidenteak larrialdi egoera dekretatu zuen estatu mailan, eta etxeratze-eginak egon dira zazpi egunetan herrialdeko hainbat eskualdetan. Arratsaldeko 17:30etatik hasita, hurrengo eguneko goizeko 06:00ak arte, gutxi gorabehera, egiten ari ginena utzi eta etxean geratzeko abisua egon da. Unibertsitateko eskolak ere bertan behera geratu dira, garraioa murriztu da, dendak itxi dira eta supermerkatuetan hiru orduko ilarak osatu dira, beharrezko elikagaiak bukatuko ote diren beldur, jendea masan joan delako erostera.

**Eztandaren eragilea, garraio publikoaren kostuaren igoera** Hilak 18an egin zuen eztanda iskanbilak, baina istiluak bi aste lehenago hasi ziren. Piñerak berriro ere Santiago hiriko metroko tarifa igo zuen eta hogeita hamar peso gehiagoko tarifa zehaztu zuen. Egoerak behartuta, ikasleak metroa ez ordaintzeko geldialdia egin zuten eta ehunka ikasleek ordaindu gabe hesiak pasa zituzten errebindikazio moduan.

Sare sozialen bitartez #piñerarenuncia hashtagarekin, mobilizazio handia gertatu zen ordu gutxitan eta berehala zabaldu zen ezinegona Txilen. Ikasleak ez ezik, adin guztietako jendeak mugimendua jarraitzeko erabakia hartu zuen. Kolokan dago bizi baldintza duina izatearen eskubidea eta demokrazia krisian dagoela salatzen da, Pinocheten diktaduratik, herrialdeak ez delako behar bezalako prozesu erreparadorea izan.

Eztanda metroko tarifaren igoera sinboliko batek eragin bazuen ere, herritarrek diote diktadura amaitu zenetik hogeita hamar urtetan zehar gizarteak jasan dituen zapalkuntza eta diskriminazioagatik daudela protestan. Hain justu ere, herriaren haserre piztu duten arrazoiak asko dira, baina horien artean daude

Maddi Ormazabal: «Ikusi dugunagatik osasun sistema eta pentsioak oso eskasak dira, eta edozein momentutan gertatu zitekeen zerbait izan da hau»

herrialdeko osasun sistema eskasa, Hego Amerikako hezkuntza garestiena izatea, 400.000 pesoko soldata minimoak, astean berrogeita bost orduko lanaldia izateak, uraren pribatizazioa eta elite politikoen soldatak herritar zibilarenak baino hogeita hamahiru aldiz altuagoak direla.

**Manifestazio baketsuen aurrean estatuak errepresioarekin erantzun du**

Egun guzti hauetan giza eskubideak bortxatu dira Txilen. Karabinero (los Pacos) eta militarrek kaleak hartu dituzte tankeekin, herrialdea gerran egongo balitz bezala, eta suzko armak, gas lakrimogenoa, gomazko pelletak, presio handiko ur txorrotak eta indarra erabili dituzte protestak gelditzeko.

Honez gero 23 hildako egon dira lurraldean eta hilaren 28rako erregistratu ziren 1132 pertsona zauritu ospitalean, 101 akzio judizial eta 3243 atxilotutako egon dira. Jazarpen sexualak, torturak eta hilketak salatu dira. Egoeraren aurrean, joan den astelehenan Nazio Batuen Erakundea Txilera etortzeko zen lau astez jazarpenak aztertzeko, baina arrazoi ezezagunak direla medio, bisita atzeratzea erabaki zuten.

Herriak argi utzi du hau ez dela gerra bat, bizi baldintza duinak izateko eta diskriminazioak amaitzeko eskaera baketsua baizik. Piñerak kargua uzteko eskatzen dute eta guztiaren ginetik Biltzar Konsti-



Kalera atera dira txiletarrak, manifestazio baketsuetan. Argazki gehiago: [www.kronika.eus](http://www.kronika.eus). Argazkiak: A. Isasa.

tuziogilea eratzea nahi dute. Horregatik, uneoro entzuten dira kazeroladak eta oihiak: 'El pueblo unido jamás será vencido' eta toki guztietan daude 'Renuncia Piñera' edota 'Chile no te duermas nunca más' bezalako kartelak.

Hala ere, badira martxa eta eskaera pazifikoak era batean zapuzten dituzten pertsonak ere. Egunero egon dira suzko barrikadak eta harri jaurtiketak hirietan, eta komertzio txiki zein haundiak sakeatu eta erre dituzte. Valparaisoko hiria, esaterako, txikituta dago. Ez da arraroa erretako eraikuntzak, puskatutako erakusleihoak edota semaforo zein seinaleak lurrean botata ikustea.

Dendariek guardiak egiten dituzte euren denden kanpoan, baten batek guztia lapurtu eta txikituko duelakoaren beldur. Txaleko horiak jartzen dituzte eta gau eta egun geratzen dira komertzio kanpoan, beren egoera besteena be-

zain eskasa delako kartel bat eskutan dutela duintasuna aldarrikatuz. Horrela, txiletar guztien borroka delako deialdia egiten dute eta komertzioak ez sakeatzeko eskaera egiten dute.

**Euskaldun ikasleak daude herrialdean, hernaniarrak barne**

Valparaiso, Santiago, Valdivia edota San Felipe dira, besteen artean, euskaldunak sei hilabeterako ikasketak egiteko aukeratu zituzten hiriak. Guztiek bizi dute egun hauetan Txileko errealitatea eta protesten eztanda, eta noski, bertako unibertsitateko paroiak Euskal Herriko unibertsitateko baliozkotzeak kolokan utzi ditzakete. Ez da hau, ordea, Libe Murua hernaniarraren edota nire kasua. Valparaisoan gaude biak eta ia bi astez eskoletara joateko aukera izan ez badugu ere, konbalidazioekin ez da arazorik egongo. «Pertsonalki oso intensoa ari da izaten bizitzen

ari garena eta benetan gogorra lehenengo pertsona bizitzea. Hala ere, uste dut, esperientzia asko aterako ditudala hemen-dik. Iada egun dexente igaro dira eta herritarrek oraindik ere kalean jarraitzen dute egun eta gau. Aipamen berezia egin nahiko nieke oraindik lehen lerroan borrokan jarraitzen duten guztiei», dio Muruak.

Maddi Ormazabal Valdivian dago erizaintzako praktikak egiten. Hernaniarrak ez ditu arazoak izango konbalidazioekin, baina tentsio egunak bizi izan ditu, baita ere: «Kalera atera gara eta ikusi dugu jendearen jarrera guztiz positiboa dela, gauzak aldatzeko gogo handia dutelako. Hala ere, poliziaren partetik tiroak ikusi ditugu, gasa bota dute eta proportzionalki erabilitako indarra ez da batere justua izan. Baina Valdivia Santiago baino hiri txikiagoa da, eta toque de queda baino lehentxeago etxera joanez gero, ez dut arrisku egoera larrikeria bizi izan». ■

■ GOIZUETA IKER SALABERRIA

## «Afizionatuetan ere horrelaxe jokatu dut, ausart, eta horrek ekarri nau nagoen tokira»

Profesionaletan debutatzeaz gain, debutean garaipena lortzea izan du sari Iker Salaberriak. Rezustarekin batera 13-22 irabazi zuen ostiralean Beotibarren, Elezkano II eta Bikuñaren kontra. Asteburua pasata, atzera lasaitasunez begiratu eta balorazioa egiteko tartea hartu du goizuetarrak, juxtu-juxtu bada ere.



Inguratu egin zuten Iker Salaberria (ezkerretik 11garrena) senide eta lagunek, harmailetatik kantxaraino babeserakutsiz.

Argazkia: BIDANE HUICI ANTON

### PASA da asteburua. Zer moduz sentitzen zara orain? Bizitakoa asimilatu duzu?

Ongi, lasai nago orain. Oraindik pixka bat geratzen zait, atzo arte ez bainuen asimilatu bizitakoa, baina lasaituta nago dagoeneko.

### Debuteko partiduari distantzia gehixeagorekin begiratzeko tartea utzita, hasieran urduri xamar zinela esan daiteke? Aurreneko sarea egin eta errematea txapa behera joan zen...

Hasieran pixka bat urduri nengoen eta nabariagoa zen. Baina behin izerditzen hasi nintzenetik aurrera, lasaitu eta ongi sentitu nintzen.

### Partiduak aurea egin ahala, konfiantza irabazi zenuen...

Lehendabiziko tantoa egin nuenetik aurrera, lasaiago aritu nintzen. Horrez gain, Rezusta atzean edukitzea laguntza handia da, eta konfiantza ematen du.

### Aurrean zenuen areriroa ere ez zen makala. Gogorra egin zitzaizun?

Uste dut ongi moldatu nintzela. Gogorra zen kontrarioa. Baina banekien aukerak izanen nituela eta horiek aprobete

txatu behar nituela, eta horretan saiatu nintzen. Tiki-taka tiki-taka aritu behar izan genuen, eta hor ere, gustora.

### Aipatu duzu Rezustak emandako laguntza. Horrek segurtasuna eman zizun?

Beti ere, lehendabiziko partiduan horrelako atzelari bat izateak segurtasuna eta lasaitasuna ematen du. Ausartagoa izaten gehiago atrebitu nintzen, bera atzean zegoelako.

### Hain zuzen, ausardia hori aipatu zenuen partidua bukatu bezala ere. Hori da zure indargunea?

Nire jokoa da ausart jokatzea. Banekien aurreneko partiduan gozatu egin behar nuela, eta horrela gauza asko bakarrik ateratzen dira. Momentuan egin beharreko jokoa hori zen. Aurrerago ikusiko da.

### Aldatu daitekeela esan nahi duzu? Ausart jokatzeko arriskuak ere gehiago sortzea dakar...

Afizionatuetan ere horrelaxe jokatu dut, eta horrek ekarri nau nagoen tokira. Hori da nire jokatzeko modua, eta ez dut aldatuko, ez nintzateke moldatuko. Badakit oraindik ikastekoak badauzkadala, eta hori ikusi zen, baina jokoa ez dut aldatuko.

«Behin izerditzen hasi nintzenetik aurrera, lasaitu eta ongi sentitu nintzen»

«Banekien aukerak izanen nituela eta horiek aprobetxatu behar nituela»

### Partidu bukaera aldera gehixeago kosta zitzaizun tantoak bukatzea. Nekearen eraginez, agian?

Nerbioek berek, horrek eragindako tentsioak, gehiago nekatzeko eragiten dute, eta agian bai, bukaerarako nekea pixka bat nabaritu zen. Baina gustora ari nintzen, eta behar bazen, segituko nuen pilotan. Lehendabiziko partidua izanda, tentsioa banuen, eta beraz, bukaerarako neke puntua bazen. Baina ongi sentitu nintzen partidua osoan zehar.

### Hain zuzen, azken tantoa zerorrek egin zenuen. Horrek gozoagoa egiten du garaipena?

Beti ere polita da zuk egindako tantoarekin bukatzea. Hasi ere, horrela hasi zen partidua,



Garaipena eskuratuta borobildu du debuta, Iker Salaberriak.

Argazkia: ASPE PELOTA

aurreneko tantoa nik fallatu nuen eta! Baina nik bukatuta, pozik.

### Harmailetan zenuen babesak ere emanen zizun indarrik...

Nabaritu nuen, bai! Goizetik bertatik jendea hasi zitzaidan telefono mugikorrera mezuak eta whatsappak bidaltzen. Babes handia jaso nuen, bai kantxatik kanpo, eta baita gero, frontoian ere. Denentzako oso egun polita izan zen, eta niretzat eta nire familia-rentzat, ahaztezina izanen den egun bat. Orain, lanean segi

beharko dut pixka bat, pausoz pauso, ea pixkanaka aurrera-pausoak ematen ditugun.

### Herrian ere harrera ona jaso al duzu?

Egia esan, ez dut denbora askorik izan lasai egoteko. Ostiralean bertan afaria izan genuen Petritegin, eta hurrengo egunean, ezkontza izan nuen! Igande arratsaldean, berriz, Bilbora joan nintzen partidua ikustera. Gaur edo egun hauetan zehar aterako naiz herrira, eta seguru izanen dela zer edo zer esaten didanik. ■

## ■ GOIZUETA ESKU PILOTA

## Erdipurdiko hasiera eman diote pilotari goizuetarrek etxeko txapelketari

*Kimuen mailan irabazi egin du Umore Onak, baina 22 urtez azpikoetan, galdu. Hernanik irabazi egin du kimuetan.*

IGANDEAN jokatu ziren Goizuetako IV. Umore Ona Pilota Txapelketako aurreneko partiduak. Lau mailatan banatuta, 6 partidu jokatu ziren denera, eta tartean aritu ziren pilotari goizuetarrak eta baita hernaniarrak ere.

### Emaitza onenak, gaztetxoek

Txapelketako aurreneko partiduak jokatu dituzten klubak 7 izan dira etxekoez gain, baina umeen mailan, haiek bakarrik aritu dira. Hain zuzen, Umore Onako bi bikoteren arteko lehiak eman zion hasiera txapelketari. Nabarte eta Sagardui aritu ziren Legarreta eta Alsua-ren kontra, eta joko polita egin da, aurrenekoek irabazi zuten, bi tantoko aldearekin: 18-16.

Hurrengo partiduak kimuen mailan jokatu ziren, eta bertan, bai Goizueta eta bai Hernani, txapeldun izan ziren. Umore Onako Salaberria eta Apezetxea 18 eta 17 gailendu ziren Bortzirietako Azpiroz eta Kortaren aurka. Hernaniko Macior eta Osese, berriz, 18 eta 6 irabazi zuten Añorgako Aizpuru eta Cuestaren kontra.



Emaitza hobekak lortu ditu Umore Onak gaztetxoekin, txapelketa hasieran.

Haurren mailan, Oiarpe eta Bortzirietako aritu ziren aurrez aurre. Aurreneko klubeko Olaitz eta Leonet izan ziren txapeldun, Etxenike eta Madariagari 18 eta 4 irabazita.

### Irurtzun eta Oiarpe, nagusi

Nagusien mailan ezin izan zion hasiera borobila eman txapelketari, etxeko taldeak. Aizkorbek eta Apezetxeak

Oiarpeko Ugalde eta Etxeberria izan zituzten aurrez aurre, eta haiek irabazi zieten, 22 eta 17.

Maila honetako beste partidua Irurtzango bikoteak irabazi zuen, Arribillagak eta Goikoetxeak osatua; 22 eta 14 irabazi zieten Getariako Aristi eta Ilunpeko Salegiri.

Hurrengo partiduak ostiraltan jokatu dira, aste honetan bertan hasita. ■

## ■ HERNANI ERREMONTA

## Maila ikusgarrian ari da Barrenetxea hernaniarra

*Larunbatean tanto bakarragatik galdu zuen, Ansa IIekin, eta horrek geldiarazi du garaipen errenkada.*

BURUZ Burukoa irabazi zuenetik, goranzko bidean segi du Barrenetxea IV atzelari hernaniarrak, pasa den asteburura arte. Garaipen bolada eten zaio, Uterga eta Endikaren aurrean, Ansa IIekin batera 39 eta 40 galduta. Dena den, maila ikusgarrian jokatzen ari da hernaniarra, eta larunbatean ere partidu ikaragarriarekin gozatzeko aukera izan zuten erremonte zaleek, Galarreran.

### Partidu bihurria

Uterga eta Endikak Barrenetxearen bolada ona geraraztea lortu zuten larunbateko estelarrean, gutxigatik bada ere; tanto bakarraren aldearekin irabazi zuten, juxtu.

Lau erremontistak maila bikainean aritu ziren, baina neurria Utergak jarri zuen. Deigarria izan zen Ansa II eta Barrenetxea IVren aldeko 17 eta leko partziala, baina ez zen nahikoa izan. Gorria 13 eta 24 galtzen ari zirela, 30 eta 25ekora pasatzea lortu zuten, baina abantaila horri denbora gutxian eutsi zioten. Izan ere, 32ra berdindu ondoren, eta berriro ere 35-34 aurreratuta, beste lau berdinketa iritsi ziren, 36, 37, 38 eta 39ra, eta azkenean, urdinek lortu zuten garaipena.

Urdinak indartsu hasi ziren, eta Ansa IIak hotz hasi zuten lehia, gero bizitu bazen ere.

Ostegunean ere estelarrean ariko da Barrenetxea IV, Matxin IIIarekin, Zeberio II eta Ionen kontra.

Erremontista onena Uterga izan zen, 23 tanto eginda, eta bi akats besterik ez. Ansa 16 tanto eta 3 akats egin zituen.

Atzelarien artean, Barrenetxeak sakeko sei tanto eta peloteoko beste zazpi egin zituen, eta sei akats. Endikak, berriz, hiru sakeko, peloteoko bost eta zortzi akats.

### Hurrena, osteguneko estelarrean

Garaipen errenkadan etenaldi bat izan badu ere, hernaniarrak ostegunean jokatuko du berriro estelarrean, eta emaitza borobilen sasoiari eusten saiatuko da, berriro.

Ohi bezala, arratsaldeko 16:00etan hasita, lau partidu jokatuko dira, eta Barrenetxea IV, Matxin IIIekin ariko da, Zeberio II eta Ionen kontra. Aurretik jokatuko dute Urrutia II eta Zubiri goizuetarrak, Goikoetxea V eta Garcesen kontra. Ondoren, berriz, Ansa II eta Etxeberria IIIak Uterga eta Larrañagaren kontra, eta Juanenea eta Labakak, Aldabe eta Azpirozaren kontra. ■

## ■ HERNANI TXIRRINDULARITZA

## Bilera ostegunean, eskola kirolean txirrindularitza egin nahi dutenekin

*Infantil eta alebin mailako gaztetxoei eta gurasoei bideratutako bilera izango da, entrenamendu eta lehiaketa egutegia azaltzeko.*

OSTEGUN honetan, hilak 7, bilera deitu du JOCC Txirrindularitza Taldeak, 2019-2020 denboraldian txirrindularitza probatu nahi duten gaztetxoei zuzenduta. Infantil eta alebin mailako gaztetxoei zuzendutakoa izango da, hau da, 2006-2007 urteetan jaiotakoei edota 2008 eta 2009an jaiotakoei, Hernani eta Astigarragatik kanpo eskolatutakoei.

Helburua izango da urteko plangintzaren berri ematea, bai txirrindulari gazteei eta baita gurasoei ere. Besteak beste, entrenamenduen egun

eta ordutegien berri emango da, eta era berean, txapelketetako egutegia ezagutarazi eta izen-emateak nola egiten diren azalduko da.

Bilera arratsaldeko 18:00etan egingo da, elkartearen egoitzan, Latsunbe Berriko 42an (Transpakarren, garai bateko Mailuts haurtzaindegia zen horretan).

### Aurreneko entrenamendua, hilaren 12

Egutegiaren berri zehatzago emango da bileran, baina dagoeneko jakinarazi dute

aurreneko entrenamenduak noiz hasiko diren.

Infantilen kasuan, aurreneko saioa azaroaren 12an egingo da. Alebinek, berriz, eskola-kiroleko egutegiko hirugarren txandan izango dute aurreneko entrenamendua.

### Bizikletak maileguan

Bestalde, JOCC Txirrindularitza Taldeak jakinarazi du errepideko bizikletarik ez daukanak ere badaukala aukera, txirrindularitza probatzeko. Klubak berak utziko ditu bizikletak maileguan, denboraldi osorako. ■

## ■ HERNANI ERREMONTA

### Ikasleek aukera, erremontea probatzeko

Gaztetu Hernani programaren barruan, erremontea probatzeko aukera emango zaie gazteei, doan, azaroan eta abenduan. Hil honetan, 12 eta 14 urte artekoentzako ikastaroa emango da, 18, 20, 25 eta 27an. Abenduan, berriz, 15 urtetik gorakoei emango zaie aukera, abenduaren 9, 11, 16 eta 18an. Doan bada ere, 10 euroko fidantza ordaindu beharko da, eta izena eman behar da. Horretarako, kiroldegira edota Hernaniko Gaztelekura jo daiteke. ■

## ■ HERNANI CD HERNANI

### Urteko batzarra, azaroaren 21ean

Deialdia zabaldu du CD Hernani klubak, urteko batzarrerako. Azaroaren 21ean egingo da, Biterin. Aurreneko deialdia arratsaldeko 19:00etarako egin dute, eta bigarrena, 19:30etarako. ■

**GAUR** Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da egunean zehar, eta euria egingo du, zenbait lekutan ia etengabe. Baliteke, ekaitzak jotzea eta kazkabarra egitea. Ipar-mendebaldeko haizeak zakar joko du, eta tenperatura frexkoa izango dira. **Min.11° / Max.15°**

**BIHAR** Bihar ere antzera, haizea zakar ibiliko da eta zaparrada giroa nagusi izango da, haizeak boladaka gogor joko du. Honek hodeiak ekariko ditu, eta euria egingo du, tarteka zaparradak botaz. Goizaldean zaparradak, eta arratsaldean atertzeraz egingo dezake. **Min.12° / Ma15.°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaez: **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



## ASTIGARRAGA-HERNANI FUTBOLA

# Garaipenez betetako asteburua, Hernanik eta Mundarrok

Asteburu borobila izan da pasa dena, Hernanik 4-0 irabazi zuen eta Mundarrok 5-0 emaitzarekin amaitu zuen partidua.

GARAIPEN asteburua izan da pasa dena, Hernanik eta Mundarrok partidua irabazi baituzte, eta ez edonola gainera, Hernani eta Mundarroko ateetan ez da gol bat bera ere sartu.

Hernanik, ostiralean izan zuen partidua, Aretxabaleta taldearen aurka, eta garaipena lortu zuten etxekoek (4-0). Argi eta garbi, hernaniar gazteak hasieratik indarrez beteta atera ziren zelaira, eta horra hor emaitza. Defentsak ez zuen hutsik egin, hori dela eta, aretxabaltarrek ez zuten aukerarik izan golik sartzeko. Erasoan ere dena eman zuten hernaniarrek, eta aretxabaltar gazteei 5 gol sartzeko lortu zuten.

Hernanik 14 puntu lortu ditu, eta seigarren doa sailkapenean. Aurretik Urola taldea eta atzetik berriz, Mutrikuko taldea dituela.

Datorren partidua, hurrengo igandean izango da, Elgoibarren aurka.

### Mundarrok ere garaipena

Mundarrok ere, garaipena lortu zuen ostiralean, 5-0 emaitzarekin, Berako Gure txoko taldearen aurka.

Mundarroko gazteak, hasieratik atera ziren dena emateko prest, eta partiduko lehenengo ordu laurdena bete aurretik, bi golekin, lasaitasun apur bat lortu zuten. Hala ere, hurrengo aukera ikusi bezain laister, hirugarren gola sartu zuten. Minutuak aurrera egin ahala, erritmoa jeitsi zuten astigarrarrek, partidua esku artean baitzeukaten. Beraz, lehenengo zatia 3-0 emaitzarekin amaitu zuten.

Bigarren zatia baina zerbait lehenago, euri jasa botatzen hasi, eta berehala bete zen urez Astigarragako futbol zelaia. Etxekoek bazekiten zein taktika erabili kasu honetan, eta euri putzuak aprobetxatu ziztuzten, Berako Gure Txokoa taldea garaitzeko.

Hori dela eta, hiru aukera



Hernani, Aretxabaletaren aurkako partiduan, pasa den ostiralean.



Mundarro, Berako Gure Txokoa taldearen aurkako partiduan.

Hernanik 14 puntu lortu ditu eta seigarren doa sailkapenean. Urola aurretik eta Mutriku atzetik dituela.

paregabe izan zituen talde moreak, eta horietan asmatu zuten, bitan Beñatek, eta beste batean Iñakik sartu zuen, penaltiz. Gol gehiago sartzeko aukera ere izan zuten, baina atetik ez zen baloi gehiagorik sartu, beraz 5-0 eko emaitzarekin, ederki posizionatu da astigarrar talde morea. ||

## HERNANI XAKEA



Igandean egin zen Xake Txapelketako hirugarren jardunaldia.

# Laugarren Xake Materako prest?

Hiru jardunaldi egin dituzte Hernaniko Xake Elkartek antolatutako Xake txapelketan, eta datorren igandean, laugarren jardunaldia jokatuko dute.

DATORREN igandean izango da, Xake Txapelketako laugarren jardunaldia, arratsaldeko 16:00etan, hain zuzen.

### Datorren igandeko bikote aurkariak

Honakoak izango dira, datorren igandean, aurkari gisa jokatuko dutenak; Matriarena vs. Erdozio, Oxan vs. Udo Esnaola, JR Altuna vs. Macarov, Edu Sanz vs. Berrotaran, Mikel Zubia vs. Beñat Devesa, Joseba Goikoetxea vs. Ekaitz Devesa, Eli Agirre vs. Beñat Murua, Iturralde vs. Ibon Ramos, Javier Burgos vs. Jose Gonzalez, Alain vs. Jon Sagarna, Mertxe Egizurain vs. Iñaki Arrieta, Ekain vs. Peru Dominguez.

### Sailkapen orokorra

Lehenengo postuetan sei xake jolaskari daude, 2,5 punturekin, hala nola, Martiarena, Maracov, Oxan, Iñaki Erdozia, JR Altuna eta Udo Esnaola.

2 puntu dituztenak berriz, hiru dira, Berrotaran, Xerpa eta Edu Sanz.

1,5 punturekin; Ekaitz Devesa, Iturralde, Eli Agirre, Beñat Devesa, Beñat Murua, J. Goikoetxea eta Mikel Zubia.

Puntu bakarrarekin; Maitane Otaolea, Ibon Ramos, Javier Burgos, Alain Gonzalez, Jose Gonzalez, eta Jon Sagarna.

Puntu erdiarekin, Iñaki Arrieta, Peru Dominguez eta Merte Egizurain dira. Eta azkeneko postuan, Ekain Estegano dago, zero punturekin. ||

## IRAGARKI MERKEAK

Neska euskalduna behar da Hernaniko taberna batean lan egiteko.  
Deitu: 679 476 992 (15:30-18:30)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako  
Saillburuordetzak)  
diruz lagundua

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA